



PRENTSA OHARRA: 2024.12.02

Euskararen Nazioarteko Eguna munduko hainbat hiritan ere ospatuko da Etxepare Euskal Institutuaren babesarekin

- Askotariko ekitaldi, ikastaro eta hitzaldien bidez, diasporako lagunek eta hainbat unibertsitatetako ikasleek aukera izango dute euskararen eta euskal kulturaren murgiltzeko
- Etxepare Euskal Institutuak munduko hainbat unibertsitateetan sustatzen dituen euskara eta euskal kultura irakurletzeko egitarau zabala eskainiko dute, nazioarteko euskal komunitateko eragileekin elkarlanean
- Euskal Herritik kanpoko 13 hiritan egingo dira jarduerak, hala nola, Berlinen, Edinburgon, Bolognan, Montevideon, Santiagon, Poznanen edo Bartzelonan

Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunarekin egingo du bat, aurten ere, Etxepare Euskal Institutuak. Askotariko ekitaldi, ikastaro eta hitzaldien bidez, diasporako lagunek eta euskara ikasleek aukera izango dute euskal kulturaren murgiltzeko. Europako eta Ameriketako zenbait txokotara iritsiko da Etxepare Euskal Institutuaren nazioarteko irakurletza sarearen baitan antolatutako kultur programen bidez. Aurten, 13 hiritan burutuko dira jarduerak hauek. Batzuek jada egin dira.

Besteak beste, Berlinen, Edinburgon, Bolognan, Montevideon, Santiagon, Poznanen edo Bartzelonan egingo dira hitzaldiak, erakusketak, tailerrak, kontzertuak eta filmen proiektzioak. Jardueren zerrenda guztia kontsultatu daiteke beheago.

Irakurleak Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan, gradu edota graduondokoa ikasten ari diren ikasleei euskara eta euskal kultur ikastaroak eskaintzen dizkieten



irakasleak dira. Etxepare Euskal Institututik abiatutako eta kudeatutako programa bat da, atzerriko unibertsitateekin elkarlanean; eta irakasle guzti horiek eta euren ikasleek osatzen dute irakurletza sarea. Euskara eta euskal kultura klaseak emateaz haratago doan lana egiten dute: euskal bizimodu eta tradizioen eredu eta sustatzaile dira atzerrian. Irakurleek, Etxepare Euskal Institutuaren sustapen eta laguntzarekin, euskal kulturarekin lotutako ekintzak antolatu ohi dituzte urtean zehar, Euskal Herrian garrantzitsuak diren efemerideak, pertsonaiak edota ohiturak ezagutarazteko helburuarekin.

Gaur egun Etxepare Euskal Institutuak 18 herrialdeetako 35 unibertsitateetan sustatu eta kudeatzen ditu euskara eta euskal kultura irakurletzak. Guztira, 29 dira programa honetan lan egiten duten irakurleak. Europan, Espainia, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Finlandia, Polonia, Txekiar Errepublika, Suitza, Hungaria, Irlanda eta Georgiako hainbat unibertsitateetan daude irakurletza programak. Amerikan, aldiz, AEBn, Argentinan, Txilen, Mexikon, Uruguaien eta Kuban ematen dira eskolak. Azkenik, Asian irakurletza bat ere sustatzen du Institutuak, Japonian, hain zuzen ere.

Mundu osoko euskal giza kolektibitateen artean euskararen ezagutza bultzatzea ere bada Institutuaren eginkizunetako bat. Horretarako Euskara Munduan programaren bitartez, mundu osoko euskal giza kolektibitateen artean euskararen ezagutza bultzatzeko egiten du lan. Gaur egun munduko 70etik gora euskal etxetan ematen dira euskara eskolak Institutuaren laguntzarekin.

Euskararen Nazioarteko eguna 1949an egin zuten lehenengo aldiz, Eusko Ikaskuntzak sustatuta. Ofizialki, hala ere, 1995an hasi ziren Euskararen Nazioarteko Eguneko jai, bilera eta bestelako ekintzak, euskal diasporak mundu osoko lehen kongresuaren kariatara egin zuen garaian. Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak egoki ikusi zuten abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna izendatzea.

Jarraian kontsultatu daiteke aurtengo jardueren zerrenda osoa:

Calabasas, Kalifornia, AEB

Azaroak 23 (University of California Los Angeles)



Miguel Leonis euskaldunak fundatutako Calabastas hirira txangoa. Bertan, Miguel Leonisen musera bisita. Klasean irakurri eta eztabaidatutako hainbat gauza hurrenez hurren ikusteko eta galdetzeko aukera ere izango dute ikasleek.

Bartzelona, Espainia

Azaroak 29 (Universitat de Barcelona eta Universitat Autònoma de Barcelona)

Bartzelonako Euskal Etxearekin eta Bartzelonako Hizkuntza Eskola Ofizialarekin elkarlanean antolatutako mintzodromoan parte hartzeko aukera izango dute bi unibertsitate horietako ikasleek.

Santiago, Txile

Azaroak 30 (Universidad de Chile eta Pontificia Universidad Católica de Chile)

Irakurletzek eta Euskal Etxeak antolatuta, mintzodromoa, Santiagoko Euskal Etxean bisita gidatuak, jolasak, dantzak, etab.

Brno, Txekia

Abenduak 1 (Masarykova Univerzita)

‘Errementari’ (2017, Paul Urkijo) filmaren proiektzioa Kino Art zineman.

Edinburgo, Eskozia

Abenduak 1 (The University of Edinburgh)

Bertako euskal komunitateak antolatuta, pintxo tailerra, euskal quiz-a, dantza ikastaroa, dantzaldia eta kontzertua. Halaber, unibertsitate horretan euskara eta euskal kultura irakurle den Dylan Inglis-ek hitzaldia emango du.

Bologna, Italia

Abenduko lehen astea (Università di Bologna)

‘Bertsolari’ (2011, Asier Altuna) filma ikusi eta gero Eli Zalduarekin bertsolariarekin gaurko bertsolaritzaren inguruan arituko dira. Elkarrizketa online izango da.

Champaign, Illinois, AEB

Abenduak 2 (University of Illinois)



Euskal Herriko paisaia soziolinguistikoari buruz hitz egingo du Gorka Basterretxea hizkuntzalariak. 2019tik 2024ra egon da datuak biltzen, euskararen presentzia eta herritarren jarrerak eta erabilpena aztertuz.

Montevideo, Uruguai

Abenduak 3 (Universidad de la República)

Batetik, 'Irati' (2022, Paul Urkijo) filma proiektatu eta gerturatutakoekin hizketaldi bat egingo da. Bestetik, Jon Sarasuak euskarak egun bizi duen egoeraren erradiografia eta etorkizunera begira dauden erronkak ezagutzera emango ditu.

Poznan, Polonia

Abenduak 3 (Adam Mickiewicz University)

Lehenik, ikasleek ikasgelan prestatutako euskal mitologiari buruzko aurkezpenak erakutsiko dituzte. Jarraian, pintxo tailerra egingo da.

Helsinki, Finlandia

Abenduak 4 (University of Helsinki)

Euskarazko poesia sorkuntza tailerra antolatu dute ikasleekin. Hizkuntzarekin jolastu eta literatur-sorkuntza bultzatzeko helburuarekin, ikasleak euskarara eta hizkuntzetara orokorrean hurbiltzeko beste perspektiba batzuk proposatuko ditu.

Madril, Espainia

Abenduak 4 (Universidad Complutense de Madrid)

Xabier Amurizak bertsolaritzari buruzko hitzaldi bat emango die unibertsitateko euskara irakasgaietako ikasleei. Komunitate akademiko osoari irekitako hitzaldia.

La Plata, Argentina

Abenduak 6 (Universidad Nacional de la Plata)

Irakurletzak eta Euskal Etxeak antolatuta, mintzodromoa eta jokoak unibertsitateko ikasgelan eta ondoren kantu afaria La Platako Euskal Etxean.

Berlin, Alemania

Abenduaren 6-10 (Freie Universität Berlin)



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**

Abenduaren 6an, Edinburgoko Unibertsitatean euskara eta euskal kultura irakurle den Dylan Inglis-ek gidatuko tailer linguistikoa eta mintzapraktika egingo da Berlingo Etxeko kideentzat.

Abenduaren 10ean, Dylan Inglis-ek euskalkien eta euskara batuaren inguruko hitzaldia eta tailerra emango die Freie Unibertsitateko euskal soziolinguistikako ikasleei.

Info +

Komunikazioa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus